



ARTE ETA KULTURA INDUSTRIAK EAEn ESTADISTIKA DEFINIZIOAK

I. ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK

Antzokiak: azpiegitura iraunkorrek dira, mota guztietako produkzio eszenikoetako emanaldietarako beharrezko baldintza teknikoak biltzen dituztenak. Zentsua egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Nagusiki ikuskizun eszeniko profesionalak programatzen dituzten antzokiak hartu ditugu aintzat. Programazio amateurreko zati osagarri bat badagoela aitortu den kasuetan, programazio hori kontuan hartu da jarduera kontabilizatzerakoan. Ikuskizun amateurrak bakarrik programatzen dituzten antzokiak estatistikatik kanpo geratu dira.
- Urtean zehar gutxienez 3 emanaldi profesional programatu dituzten antzokiak soilik hartu dira kontuan.
- Antzokien jardueraren barruan, arte eszenikoetako eta musikaren alorretako programazioa soilik hartu da kontuan; aitzitik, zinemaren, hitzaldien, bileren eta hainbat ekitaldiren programazioak kanpo geratu dira.
- Sortutako diru-sarreraren arabera bereizten dira antzokiak: antzoki handiek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzte; ertainek 100.000 eurotik milioi bat eurora bitarteko diru-sarrerak; eta txikiak 100.000 eurotik beherakoak.

Jaialdia: programazio eszenikoak dira, normalean genero jakin baten inguruan egituratuta daudenak, iraupen mugatua dutenak, eta normalean hainbat gunetan (antzokiak, kultura-zentroak, kaleak eta plazak, elizak eta abar) eskaintzen direnak. Zentsua egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Arte eszenikoetako jaialdiak soilik hartu dira kontuan, nahiz eta horietako batzuek kontzerturen bat edo musika-jardueraren bat erantsi dezaketen osagarri gisa. Hortaz, musikaren alorreko programazioa soilik egiten duten jaialdiak ez dira kontuan hartu.

II. ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK

Arte eszenikoetako ekoizleak: EAEn kokatutako erakunde publiko edo pribatuak dira, mota guztietako artelan eszenikoak abian jartzeko ekimena eta erantzukizuna beren gain hartzen dutenak. Zentsua egiteko, honako irizpide hauek ezarri dira:

- Agente ekoizle profesionalak soilik hartu dira kontuan, eta amateur motako eraketa guztiak kanpo geratu dira. Eszena-ekoizpena jardun ordaindu eta ohiko gisa duten agenteak hartzen dira profesionaltzat, baldin eta jardun hori haien *modus vivendi* nagusia bada.
- Gutxienez azken bi urteetan ikuskizunen bat ekoizti edo ustiatu duten eta aztertutako urtean gutxienez 6 emanaldi egin dituzten agente ekoizleak soilik hartu dira kontuan.

III. IKUSIZKO ARTEAK EKOIZTEKO ETA ERAKUSTEKO ZENTROAK

Produkzio-zentroak: ikusizko arteetako produkzio-zentroak ustiapen publikoko edo pribatuko establezimenduak dira, bereziki artisten eskura gune eta zerbitzu osagarriak jartzeaz arduratzen direnak, artistek denboraldi jakin batez beren sorkuntzak garatzeko aukera izan dezaten. Nagusiki ikusizko arteak babesten dihardutenak soilik bildu ditugu zentsuan, osagarri gisa beste arte batzuekin (arte eszenikoak, musika eta abar) ere diharduten edo ez kontuan hartu gabe.

Erakusketa-zentroak: erakusketa-zentroak jendearentzat irekitako erakusketa-aretoak dira, ustiapen publiko edo pribatukoak izaki nagusiki artelanak erakusten dihardutenak. Balio anitzeko guneen barruan kokatutako erakusketa-guneak bildu dira estatistikan, baina ez museo baten barruan kokatutakoak.

Arte-galeriak: arte-galeriak jendearentzat irekitako establezimenduak dira, ustiapen pribatukoak izaki nagusiki artelanak erakusten eta merkaturatzen dihardutenak, eta hori ez ezik, neurri handiagoan edo txikiagoan, sorkuntza bultzatzeaz eta artea, artistak eta artisten lanak sustatzeaz ere arduratzen direnak. Antzinako gauzak merkaturatzen bakarrik diharduten galeriak ez dira estatistikan bildu.



IV. MUSIKA PROGRAMATZAILEAK

Musika-programatzaileak: musika-programatzaileak EAEn kokatutako erakunde publiko edo pribatuak dira, musikari profesionalen kontzertuak antolatzen dituztenak. Administrazio publikoak (udalak, batik bat), jaialdiak, auditoriumak, kontzertu-sustatzaileak eta kontzertu-aretoak (aisiaren negozioari lotuak) dira musika-programatzaile nagusiak, besteak beste. Zentsua egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Urtean zehar gutxienez sei kontzertu antolatzen dituzten musika-programatzaileak baino ez dira aintzat hartu. Zuzeneko musika-kontzertuetarako areto pribatuen kasua berezia da, eta horregatik, gutxienez, urteko 24 kontzertuko betekizuna ezarri da.
- Musika genero guztiak hartuko dira aintzat, klasikoak eta modernoak (musika klasikoak eta garaikidea, rocka, popa, jazz, elektronikoa, erlijio-musika, munduko musikak eta abar).

Kontzertua: toki itxi batean edo aire zabalean musika-konposizio bat edo batzuk eskaintzeko asmoarekin eta nolabaiteko batasunarekin antolatzen diren ikuskizunak dira kontzertuak. Estatistika egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Kontzertu bereziak, iraupen luzeak jaialdi edo ekitaldi baten esparruan egiten diren emanaldietako bakoitza dira.
- Kontzertu bakarrak, berriz, ikuskizun bakar batean eskaintzen dira hainbat artista edo musika-talderen eskutik, pieza gutxi batzuk jotzen dituztenak.
- Azkenik, koproduzitutako kontzertuak zenbait erakunde publikok edo pribatuk antolatzen dituzte elkarrekin, ekimenak, erantzukizunak eta arriskuak partekatuz.

V. LIBURU INDUSTRIA

Argitaletxeak: argitaletxeak EAEn kokatutako erakunde pribatuak dira, edozein euskarritan mota guztietako liburuak argitaratzen dituztenak. Aztertutako urtean, gutxienez 4 liburu argitaratu dituzten agenteak bakarrik bildu dira zentsuan. Aldiz, prentsa, aldizkariak edo bestelako aldizkako argitalpenak soilik argitaratzen dituzten argitaletxeak ez dira aintzat hartu.

Liburu-dendak: liburu-dendak jendearentzat irekitako establezimenduak dira, ustiapen pribatukoak izaki bereziki liburuak - mota guztietakoak eta edozein euskarritan— saltzen dihardutenak. Bereziki liburuak saltzen diharduten liburu-dendak bakarrik bildu ditugu zentsuan, baldin eta, batetik, urtean 100.000€-tik gorako diru-sarrerak badituzte, eta, bestetik, liburu-salmentaren ondoriozko ehunekoa salmenta guztien % 30etik gorakoa bada. Azalera handiak eta bereziki prentsa, paper-gauzak edo antzeko gaiak saltzen dituzten establezimenduak ez dira estatistikan bildu.

VI. IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA

Ikus-entzunezko produkzio-etxeak: EAEn kokatutako erakunde publiko eta pribatu enpresarialak dira, edozein euskarritan garatutako ikus-entzunezko lan bat garatzetik merkaturatzera bitartean doazen prozesu guztien koordinazioa eta erantzukizuna hartzen dutenak. Azken 3 urteetan gutxienez lan bat produzitu duten produkzio-etxeak besterik ez ditugu bildu zentsuan.

VII. DISKO INDUSTRIA

Diskoetxeak: diskoetxeak EAEn egoitza duten erakunde pribatuak dira, bereziki edozein motatako fonogramak edozein euskarritan produzitzen dihardutenak. Azken 2 urteetan, gutxienez 3 disko-lan argitaratu eta urtean 65.000 €-tik gorako diru-sarrerak eduki dituzten agenteak baino ez dira aintzat hartu.

Disko-saltokiak: disko-saltokiak jendearentzat irekitako establezimenduak dira, ustiapen pribatukoak izaki bereziki mota guztietako fonogramak edozein euskarritan saltzen dihardutenak edo salmenta horretan espezializatuta daudenak. Urtean 1.000 diskotik gora saltzen dituzten establezimenduak baino ez dira zentsuan bildu. Azalera handiak baztertu dira.